LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUAREN INFORMAZIO-SISTEMAK BEHAR BEZALA MANTENTZEKO

Sarrera

2020ko ekainean onetsi egin zen Hazi Fundazioak dituen Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko Landa Inguruneko arloko sistema informatiko guztiak IZFE SA enpresari transferitzeko proiektua.

Harrezkero, IZFE lanean ari da Plataforma berri bat diseinatzeko, Departamentuko zerbitzuak dituen Informazio-sistema guztiak izango dituena.

Informazio-sistema berri horiek garatu bitartean, kontratazioaren xede den laguntza teknikoa beharrezkoa da egungo sistemak behar bezala mantentzeko eta beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko, sistema berriak ezartzen diren heinean informazio-sistema guztien integrazioa bermatzeko.

Kontratazioaren xede den jarduera beharrezkoa da HAZIren zein IZFE enpresaren eskumena den zerbitzua eskaintzeko. Bi erakundeek dituzten giza baliabideekin eta baliabide teknikoekin ezin dituzte zerbitzu horiek eskaini eta ezin dira berrantolatu.

1. KONTRATUAREN XEDEA

1.1. XEDEA ETA IRISMENA

Agiri hau Baldintza Teknikoen Agiria da eta bere xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurumeneko Departamentuaren zerbitzuak dituen Informazio-sistemen jarraipena bermatzeko laguntza teknikoa kontratatzeko oinarri izango diren baldintza eta irizpide teknikoak ezartzea.

Adjudikaziodunak deskribatutako pertsonak eta baliabideak izan beharko ditu, aipatutako sistemen jarraipena eta eboluzio teknologiko-funtzionala bermatzeko eta zaharkitze teknologikoari aurrea hartzeko laguntza teknikoko lanak egiteko.

1.2. ZERBITZUAREN METODOLOGIA

Mantendu beharreko sistemek jarduera puntualak edo jarraituak eskatuko dituzte eta enkargu zehatzen bidez kudeatuko dira.

Informazio-sistema bakoitzak arduradun bat izango du, eta Hazi edo IZFE izan ahalko da.

Arduradun horrek erabiltzaileak bidalitako eskaera sailkatu eta baloratuko du, eta enkargua erakunde kontratatzaileari bidaliko dio. Gainera, enkarguaren jarraipena egingo du, gauzatu beharreko lanak amaitu arte dauden fase guztietan.

Eskaerak honako mota hauetakoak izan daitezke: Zuzengarria (bermeak estali gabeko gertakariak), Egokigarria (lege, azpiegitura, eta abarretan egondako aldaketei dagozkienak) edo Ebolutiboa (erabiltzaileen beharrak aldatu izana estaltzeko).

Orokorrean, eskaera guztietarako, erantzuteko gehieneko epea eskaeraren lehentasunera lotuta egongo da. Honako lehentasun hauek egongo dira:

Berehalakoa: Eskaera egiten den momentuan ekin beharko zaio, informazio-sistemak funtzionatzen ez duela edo gaizki funtzionatzen duela adierazten duelako. Justifikatutako salbuespenetan izan ezik, egin eta hurrengo 4 lanorduetan zehar konpondu beharko da.

Premiazkoa: Eskaera horiek lehentasunez ebatzi beharko dira, 48 ordu igaro baino lehen. Eskaera ebazteko denbora eskaera motaren araberakoa izango da; edonola ere, gehienez ere 48 orduko epea egongo da horrelako eskaerak ebazteko. Gainerako eskaera motetarako, gehienez ere 48 orduan eskaera ebazteko plangintza bat aurkeztu beharko da, eta plangintza onetsi eta hurrengo egunean hasiko da eskaeraren lanketa.

Normala: Gainerako eskaerak. Lizitatzaileek gehienez ere 48 orduko epea bermatuko dute eskaeraren analisia egiteko eta hori ebazteko plangintza aurkezteko. Plangintza onetsi ondoren, lanak aste bat igaro baino lehen hasiko dira.

Atal honetan adierazitako epe guztiak zenbatzeko aintzat hartuko dira laneko egutegia eta Administrazio Baldintza Partikularren **Karatularen 10. puntuan** ezarritako zerbitzuaren ordutegia.

Beharrezkoa den kasuetan, motaren eta lehentasunaren arabera, kontratistak egin beharreko lanen plangintza aurkeztu beharko du, eta sistemaren arduradunak onetsi beharko du. Lanek beste sistema batzuei eragiten badiete, horiek identifikatu eta dagozkien arduradunei jakinarazi beharko zaizkie.

Ez badira adostutako epeak betetzen, kontratistak enkargu horretan zehapenaren kalkulua egin beharko du.

Esparru funtzional itxiko enkargu bat egiten denean, lanaren **kudeaketa ARINA** egingo da, nahiz dokumentazioari nahiz eskatutako lanaren eraikuntza-prozesuari dagokionez.

1.3. ZERBITZUAREN TEKNOLOGIA

Kontratu honen irismeneko sistemak osatzeko, honako tresna eta teknologia hauek erabili dira:

Ms Access 2003	Inprimakiak, markoak, txostenak, etab. lantzen dira. Vb programazioa HAZIn garatutako bibliotekekin. Sortutako aplikazioak bezeroak izango ditu Cliente Runtime 2010 aplikazioarekin, Oracle datu-basean.
Visual Basic	Vb 6.0
VB.net	HAZIn garatutako aplikazio eta webguneko eredu-bista-kontrolatzailea (RECAPLNET). Visual Studio 2008
ASP 3.0	Microsoft teknologia, gaur egun mota honetako sistemak baino ez dira mantentzen. IIS 8.5 plataformaren gainean, 6.0.-tik migrazioan.
ASP.NET	Zerbitzariaren WEB plataforma. HAZIn garatutako eredu-bista-kontrolatzailea (MVC) erabiltzen dugu (REKAPLNET) Ikus I. eranskina Microsoften MVC-n ditugu sistemak, 5. bertsioan eta goragokoetan
FRAMEWORKS bista	Jquery, Ionic, geure txantiloiekin. Ez ditugu hirugarrenen kontrolak erabiltzen. Bootstrapen geruzarekin. AdminLTE txantiloia https://almsaeedstudio.com/preview
BD Oracle	Sistemak 11 eta 12 bertsioan SQlDeveloper datu-basea kudeatzeko tresna gisa
Reporting	Office automatizazioaren eta Microsoften Sql Server Reporting Services-en bidez

1.4. ZERBITZUAREN DESKRIPZIOA

Honako taula honetan jasota daude kontratazio honen xede den egingo plataforma osatzen duten informazio-sistema nagusiak: Bertan, aplikatibo bakoitzaren plataforma teknologikoak adierazten dira.

ZERBITZUA	APLIKAZIOAREN IZENA	PLATAFORMA
LANDARE ALORRA	GIPUZKOAKO HAZTEGI ERREGISTROA (EJrekin konektatzen da)	ACCESS
LANDARE ALORRA	GIPUZKOAKO MAHASTIEN ERREGISTROA	ACCESS
LANDARE ALORRA	ROPO - LANDARE-OSASUNERAKO DEFENTSA-BALIABIDEEN EKOIZLE ETA ERAGILEEN ERREGISTRO OFIZIALA (Ministerioarekin konektatzen da)	VB.NET
LANDARE ALORRA	EKOIZPEN PRIMARIOKO HIGIENE ETA FITOSANITARIOEN IKUSKAPENA	ASP.NET
LANDARE ALORRA	SAGARRONDOETARAKO DIRULAGUNTZAK	ACCESS
LANDARE ALORRA	NEKAZARITZAKO MAKINEN ERREGISTROA A03 (Ministerioarekin konektatzen da)	ACCESS
GARAPENA	MENDI NEKAZARITZA	ACCESS
GARAPENA	IX.c NEURRIA – NEKAZARITZA-USTIATEGIETAN ORDEZKOTZA-ZERBITZUAK	ACCESS
GARAPENA	GFAko sarrera-erregistrorako lotura	VB.NET
GARAPENA	UHOLDEETARAKO LAGUNTZAK	ACCESS
GARAPENA	USTIAPENEN DATU EKONOMIKOAK – A03	ACCESS
GARAPENA	OBRA ELEKTRIKOAK	ACCESS
GARAPENA	NEKAZARITZA USTIAPENENTZAKO LAGUNTZAK (PLAN BERRIA) – A03	ACCESS
GARAPENA	NEKAZARITZA USTIAPENENTAKO LAGUNTZAK (PLAN ZAHARRA) – A03	ACCESS
GARAPENA	112 NEURRIA A03 – NEKAZARIAK ETA NEKAZARI GAZTEAK NEKAZARITZA USTIAPENETAN SARTZEKO LAGUNTZAK	ACCESS
GARAPENA	113 NEURRIA – NEKAZARITZA-JARDUERA AURRETIAZ AMAITZEA – ACC03	ACCESS
GARAPENA	121 NEURRIA A03 – NEKAZARITZA USTIAPENAK BERRITZEKO LAGUNTZAK	ACCESS
GARAPENA	4.1. NEURRIA – NEKAZARITZA USTIAPENETAN INBERTITZEKO LAGUNTZAK	ACCESS
GARAPENA	6.1 eta 6.3 NEURRIA – NEKAZARI GAZTEEK ENPRESAK SORTZEKO LAGUNTZAK	ACCESS
GARAPENA	LEHENTASUNEZKO USTIAPENAK A03	ACCESS
GARAPENA	USTIAPENEN ERREGISTROA – A03	ACCESS
GARAPENA	ORDAINKETAK. Bankuari ordaindu izanaren fitxategiak	VB.NET
GARAPENA	HIRIGINTZA – GARAPEN TXOSTENAK	ACCESS
Flora eta Fauna	GAIKAKO BISOREA	ASP.NET
Flora eta Fauna	LIZTOR ASIARRA	ASP.NET
Flora eta Fauna	EHIZA KUDEATZEA	ASP.NET
Flora eta Fauna	EAEn EHIZATZEKO LIZENTZIA	ASP.NET
Flora eta Fauna	ARRANTZA EGITEKO LIZENTZIAK	ASP.NET
Flora eta Fauna	EHIZA EGITEKO LIZENTZIAK	ASP.NET
Flora eta Fauna	EAEn IBAI-ARRANTZARAKO LIZENTZIA	ASP.NET
ABELTZAINTZA	GARRAIO ESKERA. Ikuskaria	ASP
ABELTZAINTZA	Bikoiztutako (Giabeko) ARRAKADAK ESKATZEA, ALDIZKAKOA	ASP
ABELTZAINTZA	LABORATEGIKO LAGINAK. Prozesua (Zerbitzua)	ACCESS
ABELTZAINTZA	GANADUA BILTZEN. Enpresa	VISUAL BASIC
ABELTZAINTZA	GANADUA BILTZEN enpresaren datuak sartzea. Prozesua	VISUAL BASIC
GANADERIA	ALBAITARIAK	ACCESS

ABELTZAINTZA	ALBAITARIEN datuak sartzea. Prozesua	VISUAL BASIC
ABELTZAINTZA	ARRAKADAK/UELN ASP (igorlea) BILATZEA	ASP
ABELTZAINTZA	NET WEBEKO ERROLDA EZARTZEA	ASP.NET
ABELTZAINTZA	BEHI-KUDEAKETA	ASP.NET+BOOTSTRAP
ABELTZAINTZA	ARDI/AHUNTZAK KUDEATZEA	ASP.NET+BOOTSTRAP
ABELTZAINTZA	JAIOTZEN JAKINARAZPENAK – GIABEKO (Enprsea). Prozesua	ACCESS
ABELTZAINTZA	Jaiotzen jakinarazpenak sartzea. Prozesuak	VB.NET
ABELTZAINTZA	ARDI SITRANA A03. Zerbitzuak kudeatzea	ACCESS
ABELTZAINTZA	EAEko eta EAEtik kanpoko hiltegiko datuak sartzea. Prozesua	VB.NET
ABELTZAINTZA	AHUNTZ SANEAMENDUA 103. AHUNTZ SITRANA	ACCESS
ABELTZAINTZA	ARDI SANEAMENDUA A03. SITRAN	ACCESS
ABELTZAINTZA	RASVE. Albaitaritzako Osasun Alerten Sarea (Ministerioak ezarritakoa)	ACCESS
ABELTZAINTZA	REGA bidalketak. Prozesua	VB.NET
ABELTZAINTZA	SITRAN POSTONTZIAK IRAKURTZEA, zaldi, ardi, ahuntz, behi, zaldi, txerri zein beste espezie batzuentzat. Web-Services	VB.NET
ABELTZAINTZA	SITRAN bidalketak – Zaldi, ardi, ahuntz, behi, zaldi, txerri zein beste espezie batzuentzako prozesua.	VB.NET
ABELTZAINTZA	ABELTZAINTZA USTIATEGIEN ERREGISTRO OROKORRA	VB.NET
ABELTZAINTZA	Laborategiko emaitzak sartu eta bidaltzea. Prozesua	VB.NET
ABELTZAINTZA	TXERRI SANEAMENDUA A03. SITRAN	
ABELTZAINTZA	LARRE BEHIAK. GIABEKO saneamendua (Enpresa)	ACCESS
ABELTZAINTZA	LARRE AHUNTZAK. (GIABEKO) Saneamendua	ACCESS
ABELTZAINTZA	LARRE ERAMANGARRIAK – ARDI/AHUNTZ/BEHIAK - ACC03 (ALDIZKAKOA)	ACCESS
ABELTZAINTZA	LARRE ARDIAK. Saneamendua	ACCESS
ABELTZAINTZA	ZALDIAK - .NET BERRIA – SITRAN	VB.NET
ABELTZAINTZA	ZALDIAK. WEBGUNEA (GIABEKO – identifikazioa -gidak)	ASP
ABELTZAINTZA	BAZKARAKO GIDAK ESKATZEA	ASP.NET
ABELTZAINTZA	IBILGAILUAK - GARRAIOLARIAK	ACCESS
ABELTZAINTZA	GIABEKO (Arrakadak FAKTURATZEA)	ACCESS
ABELTZAINTZA	MINGAIN URDINA	ACCESS
ABELTZAINTZA	ESPEZIE ASKOTARIKO GIDAK ASP	ASP
MENDIAK	KOMUNALEN ESKAERARAKO WEBGUNEA (Udalak)	ASP
MENDIAK	INFOGIS	ASP.NET
MENDIAK	FAKTURAK KUDEATZEA	VB.NET
MENDIAK	IGORLEAREN GERTAKARIAK	ASP.NET
MENDIAK	BASO LAGUNTZAK LGP 2015-2020	ACCESS
MENDIAK	MOZKETA PRIBATUAK	ACCESS
MENDIAK	Mozketa espedienteak (UDALEI bidaltzea)	VISUAL BASIC
MENDIAK	HOBEKUNTZEN KONTUA (Kontabilitate Kudeaketa)	ACCESS
MENDIAK	MENDI PUBLIKOAK	ACCESS
MENDIAK	ESPAZIO NATURALETARAKO BAIMENAK	ACCESS
MENDIAK	SUTEETARAKO IXTE-ERAZTUNA	ACCESS
MENDIAK	MAKINEN TASATZAILE ETA ENPRESAK (Erregistroa)	ACCESS
MENDIAK	KOMUNALEN ESKAERAK A03	ACCESS
SECTEC	2018 BAINO LEHENAGOKO AKTAK	ACCESS
SECTEC	2021. URTEKO AKTAK	ACCESS
SECTEC	OGASUN-TASAK KOBRATZEKO KUDEAKETA	ACCESS
SECTEC	MANIOBRA FUNTSAK - DIETAK	ACCESS
SECTEC	SALAKETA, ITZULTZE ETA KENKETA ESPEDIENTEEN ERREGISTROA	ACCESS
SECTEC	DEPARTAMENTUETAKO DIRU-SARRERAK	ACCESS
SECTEC	DIRU-ITZULTZEAK – FEADER	ACCESS
SECTEC	FORU-AGINDUAK – A03	ACCESS

SECTEC	GIZARTE SEGURANTZA. Kontsultak	ACCESS
ABELTZAINTZA	ALBAITARIAK. WEBGUNEA	ASP.NET+BOOTSTRAP
GARAPENA	REA WEBGUNEA	ASP.NET+BOOTSTRAP
ABELTZAINTZA	IKUSKAPENETARAKO LAGINAREN OINARRIA	ACCESS
MENDIAK	EhizaUxaldia – Webgune arakatzeak	ASP.NET
MENDIAK	Kalte Espedientea – Webguneko salaketa espedientea	ASP.NET
MENDIAK	Prozesionari bisorea	ASP
ABELTZAINTZA	Berrigan – Mahaigaineko aplikazioa	VB.NET
GUZTIAK	NEKALAN – Departamentuko aplikazioen anezka	VISUAL BASIC
GUZTIAK	HAZILAN – Kanpoko erabiltzaileentzako aplikazioen anezka	VB.NET
ABELTZAINTZA	BERRIGAN – BERRIGAN aplikazioa elikatzen duen web-services	VB.NET
ABELTZAINTZA	REGA - Web services	VB.NET
GUZTIAK	TELODECLARA - Web services	VB.NET
GUZTIAK	WSHAZILAN - HAZILAN aplikazioa elikatzen duen web services	VB.NET
GUZTIAK	WSModernizacion- Web services	VB.NET
GUZTIAK	WSModernizacionExterna- Web services	VB.NET
ABELTZAINTZA	WSSitran- Web services	VB.NET
ABELTZAINTZA	WSGanaderia- Web services	VB.NET
GUZTIAK	WSNekagip- Web services	
GARAPENA	WSReaCaeDfg – sistema nagusia elikatzen duen web servicea (gobrenua)	VB.NET
GARAPEBA	WSRegMaq- Web services	VB.NET
GARAPENA	WSRegMaqInspec- Web services	VB.NET
GUZTIAK	WSIzfe- Web services	VB.NET
GARAPENA	WSDesarrollo- Web services	VB.NET
MENDIAK	WSEhizarraDfg - sistema nagusia elikatzen duen web servicea (gobrenua)	VB.NET
GUZTIAK	WSJakinarazi- Web services	VB.NET

Kontratu honen indarraldian aldaketak egin ahal izango dira jarduera funtzionalaren esparruan, dela aplikatibo berriak sartzeagatik dela hasierako irismenean zeuden batzuk desagertzeagatik.

2. LANTALDEA

Lanak normalean adjudikaziodunaren instalazioetan egingo dira. Horietan zerbitzua emateko osatzen den garapeneko azpiegiturara sartzeko aukera izango du, eta, noiz edo noiz, HAZI edo IZFEren instalazioetara sartzeko aukera izango du, **Miramongo Teknologia Parkean (Donostia) edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren instalazioetan**, bilerak, aurkezpenak eta antzeko lanak egiteko.

Adjudikaziodunak kontratuaren xede diren lanak egiten dituen bitartean hitzematen du HAZIk izendatutako pertsonei eskatutako informazio eta dokumentazio oro emango diela, garatzen ari diren lanen erabateko ezagutza izan dezaten, baita egon daitezkeen arazoen berri eta horiek konpontzeko erabilitako teknologia, metodo eta tresnen berri ere.

2.1. ESPARRU TEKNOLOGIKOA

Kontratu honen abiapuntu izango den lan-testuingurua zehaztuko da jarraian, lanaren eskakizunen edo beharren ondorioz egon daitezkeen aldaketei kalterik egin gabe, Proiektuaren Zuzendaritzarekin adostu ondoren.

- **Mahaigain Birtuala / VPN**

  HAZIk erabiltzaileei urruneko mahaigainerako sarbidea (CITRIX) emango die, edo, gaituta badago, VPN bidezko sarbidea. Adjudikaziodunak lan egiteko honako hauek dituzten ekipoak izan beharko ditu:
  - Garapen-tresnak
  - Abiapuntua izango den oinarrizko proiektua
  - Garapen-aplikazioen proiektuak/inguruneak

- **Erabilitako IDEa:**

  Ezarritako web aplikazioen garapena **Visual Studio 2015 eta Visual Studio 2008** da.

  Horren kodea kontrolatzeko eta bertsionatzeko erabiltzen den tresna **Tortoise Subversión 1.8** da eta Visual Studioren garapeneko IDE mailako hedapena ere badago: **Ankhsvn**

  Subversión-i buruzko dokumentazioa bada: (garapenean zehar entregatuko da dokumentazioa).

  Jazz programa (v1.2.65.02). HAZIk garatutako programa, negozio-klaseak sortzeko HAZIren metodologiarekin.

- **Ms Access 2003**

  SP3a duen Ms Access 2003rekin garatutako aplikazioak daude. Horrez gain, IktLib03 eta IktLibDfg03 bibliotekak eskainiko dira, HAZIn garatutakoak. Horiek aplikazioak garatzeko erabiltzen dira.

- Visual Basic 6.0

  Vb6rekin ezarritako kudeaketaren mantentzea egingo da.

- **Datu-baseak**

  Proiektuko datu-baseak Oracle-n daude. Oracle client 11 izan beharko du. Konexiorako beharrezko datuak emango dira.

- **Garapenaren antolakuntza**

Garapenerako erakundearen honako gidalerro hauek ezarri dira, Subversiónek kontrolatuta dagoen arren:

- Negozioa.
  Negozioaren zatia egoki iritzi adina proiektu klasetan banatuko da eta bakoitzak konpilatutako TAG biblioteka entregatuko du, besteek ere erabili ahal izateko. Adibidez, honakoak izan ditzakegu:
    - **RecAplNet:** HAZIren biblioteka
    - Hainbat DLL agirian sartutako aplikazioen/negozioen arabera, adibidez:
        - Negocio_NombreAplicacion.DLL
- Beste batzuk. Lantaldeen eta Proiektuaren Zuzendaritzaren artean adostuta ezarritako beste edozein arau edo estrategia.
- Bista, HAZIren jarraibideen arabera.

- **Txostenak**

Gaur egun **Reporting Services de SQL Server** 2005, 2008 edo goragoko **hedapena** erabiltzen da.

HAZIk anezka bat du teknologia horretan garatutako txostenak erabiltzeko (garapenean zehar entregatuko da dokumentazioa).

Era berean, **DevExpressen txosten-diseinatzailea** erabiltzen da, (.NET mahaigaineko aplikazioetan).

- **Hirugarrenen bibliotekak**

DevExpress

2.2. LANTALDEA

Proposatutako lantaldea beharretara egokitutako espezializazio-maila duten maila

profesionaleko teknikariek osatuko dute.

Lizitatzaileak hitzematen du, adjudikazioduna izanez gero, talde hori mantenduko duela Proposamen Teknikoen Agirian ezarritakoaren arabera eta berariazko jarduera bakoitzean finkatutako aldian. Kontratuaren betearazpenari esleitutako baliabideak hasieratik egon beharko dira izendatuta. Baliabideak aldatu edo ordeztuz gero, aurrez HAZIri jakinarazi beharko zaio, gutxienez zerbitzuaren kritikotasunaren arabera behar den adinako aurrerapenarekin, eta beti ere gehienez 15 egutegi-egun lehenago, eta HAZIk onartuko edo atzera botako du aldaketa edo ordezkapen hori. Dena dela, ordezkoak (edo ordezkoek) eskainitakoa bezalako edo goragoko profila izango dute edo ordeztu beharreko baliabidea adinakoa edo goragokoa.

Langileen ordezkapenak direla-eta lan-ingurura eta proiektura egokitzeko egon daitezkeen zailtasunak teilakatze-aldien arabera konponduko dira behar den denboran eta inolako gastu gehigarririk gabe. Proiektuaren Zuzendaritzaren arabera horrelakorik ezin bada egin, ordezko(ar)en **lehenengo hiru lan-asteak** ez dira fakturagarriak izango eta adjudikaziodunaren kontura izango dira.

HAZIk zerbitzuetara esleitutako baliabideak aldatzeko eska dezake, baliabideak egokiak ez direlako edo eskatutako kaudimen arloko baldintzak eta baldintza teknikoak betetzen ez dituztelako edo kontratistak egiazkoak ez diren inguruabarrak adierazi dituelako; horrelakoetan, kontratua hutsaldu ahal izango da eta kalifikazioen arabera ondoren dagoen lizitatzaileari adjudikatu lanak. Aldaketa horretarako, aurreko paragrafoko baldintzatzaileak ezarriko dira.

Lantaldea aurrez aurreko lan-bilera batera deitu ahal izango da Donostian, 8 orduko aurrerapenarekin, bai eta bilera telematiko batera ere, 3 orduko epean. Puntu hau behin eta berriz atzeratzen bada edo betetzen ez bada, zigorra ezarriko da Karatulako 21. puntuko kontaktuei emandako erantzunean.

Lantaldearen hasierako eraketa

Kontratua formalizatu ondoren lanak egiten hasiko den talde teknikoa adjudikazioko eskaintzan zerrendatutako kideek eta profilek osatuko dute, horien arabera egin baitzen balorazioa.

Adjudikazioren ondoren proiektuko taldea eskaintza teknikoan ezarritakoarekin bat ez datorrela ikusten bada, administrazio-agiriko 20. eta 21. ataletan deskribatutako elementuak ezarri ahal izango dira.

Lanak egiteko ordutegia eta tokia

Lanak normalean adjudikaziodunaren instalazioetan egingo dira. Horietan zerbitzua emateko osatzen den garapeneko azpiegiturara sartzeko aukera izango du, eta, noiz edo noiz, HAZI edo IZFEren instalazioetara sartzeko aukera izango du, **Miramongo Teknologia Parkean (Donostia) edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren instalazioetan**, bilerak, aurkezpenak eta antzeko lanak egiteko.

Produktuak integratu, kargatu, onartu eta puntuan jartzeko probak garapen-fasean egingo dira garapen-postuetan sartzeko mahaigain birtualetik eta GARAPEN-inguruneko hedapenean. Adjudikaziodunaren zeregina izango da ongi dabilela egiaztatzeko beharrezko proba guztiak

egitea.

Lanak entregatzeko, kontratistak mantendu beharreko Informazio-sistemen garapenerako azpiegitura erabiliko du, baita iturri-kodeko kontrolaren tresnak ere. Gainera, datu-baseetarako script-tresnak erabiliko ditu.

HAZIk edo IZFEk baterako proiektua hedatuko dute GARAPEN, PROBA eta USTIAPEN inguruneetan.

Adjudikaziodunaren egoitzan egindako garapen-lanak eta noizik eta behin **Miramongo Teknologia Parkean** egingo direnak, **honako baldintza hauetan** egingo dira:

- Oro har, lantaldeko kideek adjudikaziodunaren jabetzako hardwarea eta softwarea erabiliko dute lana egiteko, baina instalazio-lanak, ezarpenak eta abian jartzeko zereginak Informazio-sistemak esleitutako postuetatik egingo dituzte.

Ordutegia karatularen 10. puntuko baldintza espezifikoen atalean adierazitakoa da.

- Salbuespenetan eta lanen burutzapena ez datorrenean bat planifikazioarekin edo zerbitzuko beharren ondorioz hala egin behar denean, adjudikaziodunak erabateko prestasuna izan behar du ohiko ordutegitik kanpo ere (HAZIko Proiektuaren Zuzendaritzarekin aurrez akordiorik izan ezean eta jarduera garatzen den instalazioetara sartzeko prestasuna izan), eta lan horiek ez dira aparteko ordu gisa hartuko edo ez zaie horrelako orduei dagokien tarifa ezarriko.

2.3. JARRAIPEN-, KONTROL- ETA IKUSKAPEN-MEKANISMOAK

Zerbitzuaren kalitatearen kontrola eta jarraipena HAZIko Proiektuaren Zuzendaritzak egingo du IZFEren laguntzarekin.

Lantaldea proiektuaren arduradun batek zuzenduko du eta dedikazio finkoa eta behar adinakoa izango du, proiektuan zerikusia duten zereginak koordinatuko ditu eta HAZIko Proiektuaren Zuzendaritzarekin solaskide nagusia izango da.

Zehaztutako helburuak epeetan eta amaierako kalitatearen terminoetan etengabe betetzen direla egiaztatzeko kontrol-mekanismo guztiak ezarri beharko dira. Horretarako, honako hauek egitea aurreikusten da:

- Jarraipen-bilerak astero
- Zereginak egunero gainbegiratzea
- Lanen egoeren jakinarazpena astero
- Kontrol ekonomikoko bilerak
- Egoerari eta aurrerapenari buruzko txostenak
- Egiaztagiri partzialak: hala badagokio
- Lanen kontrolerako orria: hala badagokio

Proiektuaren zuzendaritza eta ikuskapena proiekturako izendatutako HAZIko langileek egingo dituzte, IZFErekin lankidetzan.

Laneko produktuak adjudikaziodunaren Proiektuaren Arduradunak nahiz HAZI eta IZFEko Sistemen arduradunek beharko dituzte; produktuekin ados badaude, aldeko txostena egingo dute eta une horretan hasiko da zenbatzen kanpoko edozein lanek izan beharreko bermealdia, egindako probetan hauteman gabeko akatsak egon baitaitezke.

Onartzeak honako hau dakar berekin:

- Dagokion ingurunean ezartzea, eta HAZIko EDO edo IZFEko Sistemaren arduradunak onartzea prozedura bakoitzean entregatu behar direnak.
- Jasotako produktuekin ados ez egoteak, bai aurrez ezarritako entrega-planarekiko irismen funtzionalari dagokionez, bai horien kalitate-mailari dagokionez, fakturazio-plana geldiaraztea eragin dezake, desadostasunak konpondu arte.
- Atal honetan sartuko dira: proiektuaren kudeaketa zuzena bermatzeko lizitatzaileak ezarritako neurrien deskripzioa; ezarri beharreko kontrol- eta jarraipen-mekanismoak; kalitatea ziurtatzeko prozesuak; eta kontratua behar bezala betetzen dela zaindu eta bermatzeko aurreikusten diren gainerako neurriak.
    - Jarraipen- eta kontrol-prozesuak
    - Txostenak
    - Adierazleak

Oharra: Proposamen Teknikoaren Dokumentazioan ez da inondik eta inora ere informazio ekonomikoa jarriko.

3. IKT KONTRATUEN BERARIAZKO BALDINTZAK

Kontratuaren xede diren zerbitzuetan edo hornikuntzetan IKT zerbitzuak zerbitzuak sartzen dira; beraz, HAZIk bermatu egingo du enpresa adjudikazioduna HAZIren hornitzaileentzako informazioaren segurtasun-politikara atxikiko dela, baita politika hori berariaz onartzen eta beteko dela bermatzen duela ere.

Gainera, enpresa adjudikaziodunak dokumentuen bidez eta modu loteslean (berariazko kontratu bidez):

- Zehaztuko du zein den edo diren berariazko helburuak eta HAZIk horiek betetzearen jarraipena kudeatzeko modua (helburuak, zedarriak, egutegia, etab.).

- HAZIren informazio-prozesuko baliabideetara sartu behar izanez gero:

    - Lana egiteko HAZIn sartzeko eredua zein izango den zehaztuko du, eta HAZIko Zuzendaritzak baimendu beharko du.

    - Lana egiterakoan erabiliko dituen erabiltzaile-kodeak pertsonalak eta ez generikoak izango dira, eta argi utziko da HAZIk eskubidea izango duela jarduera osoaren trazabilitatea kontrolatzeko.

- Kanpora ateratako softwarearen garapen kasuetan:
    - Enpresa adjudikaziodunak kalteberatasunei aurre egiteko HAZIk eskatutako informazioaren segurtasun-estandarrak bete beharko ditu produktua egitean; horiek hasieran zehaztuko dira eta zerbitzu-prestazioaren eboluzioaren mende egongo dira.
    - Enpresa adjudikaziodunak HAZIk zehaztutako tresnak baino ezingo ditu erabili eta hasieran zehaztuko dira tresna horiek, zerbitzu-prestazioaren eboluzioaren mende egongo dira.
    - Enpresa adjudikazioduna probako eta garapeneko plataformetan baino ezingo da jardun eta bertsio egonkorren arteko aldaketak dokumentatu beharko ditu. Ustiatzen ari diren plataformetara HAZIko langileak sartuko dira, eta berariaz galaraziko zaio sarbidea hornitzaileari HAZIn ustiatzen ari diren plataformetara.